

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Mañariko Udala****Mañariko Udal lokalen erabilera eta arautzen duen Udal Ordenantzaren behin betiko onarpena.**

2019ko urriaren 23an egindako Osoko Bilkuran, Mañariko Udal kiroldegiaren erabilera eta funtzionamendua arautzen dituen Udal Ordenantza behin-behineko onartu zen. Erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik hasita hogeita hamar eguneko epean ez denez inolako erreklamaziorik aurkeztu, erabaki hori automatikoki behin betiko bihurtu da, eta ordenantzaren osorik argitaratzen da.

**UDAL LOKALEN ERABILERA ARAUTZEKO UDAL-ERREGELAMENDUA****ZIOEN AZALPENEA**

Udalerrri honetan, gero eta handiagoa da udal-lokalak eta materiala erabiltzeko eskaria, dela elkarrekin beren egitekoak gauzatzeko egoitza sozial gisa baliatzeko, dela erakundeok zein partikularrek unean-unean gauzatu beharreko jardueretarako.

Udal-ondasunekin lotutako toki-araubideari buruzko araudia gorabehera, zailtasunak eragiten ditu lokalok lagatzeko eta erabiltzeko erregulaziorik ez izateak; hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da erregelamendu bat prestatzea eta onartzea, lokal eta material horien lagapena eta erabilera kasuan-kasuan arautzeko.

Hori hala, arau horiek ezartzeko onartzen da erregelamendu hau, toki-araubidearen oinarriak ezartzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1 artikulua toki-erakundeei aitortzen dien erregelamendurako eta auto antolaketarako ahala aitortuz.

**I. TITULUA****XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua. — Erregulazioaren xedea**

Erregelamendu honen xedea udal-lokalak eta Udal honek interes publiko edo sozialari jarraikiz egin ditzakeen lagapen posibleak arautzea da, baita lagapen-hartzaileek egin dezaketen erabilera arautzea ere.

Udalak ezingo dizkie laga udal-lokalak udalerrian bizi ez diren pertsonei jarduera pertsonalak eta/edo irabazi-asmokoak gauzatzeko, ez badute onurarik eragiten udalerriko herritarrentzat.

**2. artikulua. — Lagapenaren xedea**

Erregelamendu honetan araututako lagapenak eta erabilerak honako helburu hauek betetzera egongo dira bideratuta:

- Bizilagunen, elkarrekin eta udalerriko bizitza osatzen duten gainerako elementuen arteko erkidego- eta topaketa-guneak eskaintzea.
- Kultura, informazioa, prestakuntza eta aisia sustatzen duten programa eta zerbitzuak abiarazteko laguntza eskaintzea, elkarrekin edo partikularrek antolatuz.
- Lagapen horietarako eskura diren udal-bitartekoak optimizatzea.

**3. artikulua. — Lagapen motak**

Udalak bi modutan laga ahal izango ditu lokalak eta materialak:

- Lagapen ebentuala: jarduera jakin baterako edo batzuetarako.
- Aldi baterako lagapena: alderdiek adostutako denbora-tarterako.

**4. artikulua. — Lokalen izena eta kokapena**

Erregelamendu honetan araututako lagapenatarako, honako lokal hauek ezartzen dira:

- Hiru ikasgela, udaletxearen bigarren solairuan.
- Udaletxeko osoko bilkuren aretoa.
- Garai bateko liburutegia.
- Gimnasioa.
- Errose Bustintza kultur etxea.
- Pilotalekua.
- Liburutegia.

Udalak aldatu ahal izango ditu eskuragarri diren lokalen zerrenda eta haien esleipena, Udalaren erabilgarritasunak eta interesek hala eskatzen dutenean. Kasu horretan, jakinaren gainean jarriko dira erabiltzaileak.

Erregelamendu honetan araututako lagapenatarako, honako material hauek ezartzen dira:

- Ordenagailua.
- Proiektorea.
- Pantaila.
- Musika ekipoa.
- Mahaiak.
- Aulkiak.

Arautegi hau indarrean dagoen bitartean udal titulartasunera gehitzen diren jarduera soziokulturalerako material guztia.

**II. TITULUA  
ANTOLAKETA****5. artikulua. — Kontrol-organoak**

Alkatetzak edo hark eskuordetutako zinegotziak kudeatuko eta ebatziko ditu udal-lokalak baliatzeko baimenak eta gainerako kontsiderazioak, betiere toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta toki-erakundeen antolaketa-aren, funtzionamenduaren eta araubide juridikoaren erregelamenduari buruzko 2568/1986 Errege Dekretuan araututako eskumenen kalte gabe.

**6. artikulua. — Udalaren lokaletan gauza litezkeen jarduerak**

Ikastaro ez-arautuak (prestakuntza eta informazioa eskaintzera bideratuak).

- Tailerrak.
- Hitzaldiak.
- Elkarteez bestelako taldeekin egin beharreko bilerak (bizilagunak, lagunarteak...).
- Etxejabeen erkidegoen bilerak.
- Egindako jardueren erakusketak.
- Herritarretara bideratutako dinamizazio-jarduerak.
- Aisialdi- eta kirol-jarduerak.
- Bestelako kirol-, gizarte- eta kultura-jarduerak.

**III. TITULUA  
PROGRAMAZIOA ETA FUNTZIONAMENDUA****7. artikulua. — Programazioa edo egutegia**

7.1. Programazioa da udal-lokaletan gauzatutako jarduerak antolatzekeo erreminta.

7.2. Aldi baterako lagapenen kasuan, elkarte, talde, partikular eta gainerako guztiei eskatuko zaie aurkez dezatela egin nahi dituzten jardueren plangintza edo egutegia



urriaren 1a baino lehen; hala, Udalak nolabaiteko aurrerapenez onartu ahalko du lokalak erabiltzeko programazioa.

7.3. Formulaturako eskabide guztien artetik, erabilera-denbora modu orokorrean banatuko da talde, elkarte eta/edo partikular bakoitzeko, baina jarduera bakoitzerako ordu kopurua zehaztuz.

7.4. Urtero edo ebentualki programatu ezin daitezkeen jarduerak behar bezala eskatu beharko dira, gutxienez egitea aurreikusita dagoena baino bost egun lehenago, eta Alkatetzak edo haren ordezkari legez jarduten duenak ebatziko du zuzenean, nola eta ez dion egiteko hori zinegotzi bati eskuordetu.

#### **8. artikulua.— Funtzionamendu-arau orokorrak**

8.1. Lokalak erabiltzeko eskubideak eskatzen du erregelamenduko arauak onartzea, eta, haiek bete ezean, galdu egingo da eskubide hori, agiri honetako 12. artikuluan ezartzen denarekin bat.

8.2. Udalak jarduera bakoitzeko arduradun bat izendatzeko eskatuko du beti. Hauek izango dira arduradun horren egitekoak: ordutegiak, jarduera amaitu ostean lokala jasotzea, garbiketa, jardueraren ondorioz sortutako hondakinak biltzea, argiak eta iturriak kontrolatzea eta abar. Kontuan izan behar da beste elkarte, talde edo partikular batzuek erabiltzeko moduan utzi behar dela lokala eta materiala.

8.3. Erabilera baimendu ostean, lokala irekitzeko eta ixteko giltzak emango zaizkie arduradunei, eta elkarteak izendatutako pertsona hori arduratuko da giltzak gordetzeaz eta egokiro baliatzeaz. Ezingo du giltzen kopiarik egin.

8.4. Lokaletan gauzatutako ekintza guztiek jarduerarekin bat datozen materialak baliatuko beharko dituzte, eta ezingo dituzte lokaleko ondasun higigarri eta higiezinak aldatu.

8.5. Udal-lokaletan gauzatutako jarduerari buruzko publizitaterik eginez gero, Mañariko Udalaren lankidetzara adierazi beharko da beti.

8.6. Inola ere ezingo dira baliatu lokalok, beste elkarte, talde edo pertsona batzuekin partekatzea galarazten duten jarduera iraunkorrak gauzatzeko.

8.7. Nolabaiteko iraunkortasuna duten jardueretarako (tailerrak, ikastaroak eta abar), udalerriko elkarteek izango dute eskatzeko eta garatzeko lehentasuna.

8.8. Segurtasun-arrazoiak direla eta, inoiz ezingo da gainditu lokalaren gehieneko plaza kopurua.

8.9. Irabazi-asmoa duten jarduerak udal-lokalak erabiltzeko prezio publikoak arautzen dituzten ordenantza fiskaletan ezarritako tasa ordaindu beharko dute.

#### **9. artikulua.— Elkarteen eta lagapen-hartzaileen betebeharrak**

Elkarte eta lagapen-hartzaile guztiek beteko dituzte erregelamendu honetako arau orokorrak lokal eta materialari dagokionez. Zehazki:

- 9.1. Erakunde lagapen-hartzailearen obligazioak izango dira, lagatako lokal eta materialaren erabilerari dagokionez:
  - Ezarritako erabilera-ordutegiak errespetatzea.
  - Udal-lokalak erabiltzeko prezio publikoak arautzen dituzten ordenantza fiskaletan ezarritako tasa ordaintzea, hala dagokionean.
  - Adingabeek gauzatzen badute lagatako lokaleko jarduera, heldu batek egon beharko du beti arduradun gisa, eta haren datuak lokala eskatzeko agirian jasoko dira.
  - Ezer hondatuz gero, lagapenaren titularrak hartuko du bere gain.
  - Ezarritako ordutegia amaitzen denean, lokaleko giltza bueltatzea alkateari edo hark eskuordetutako zinegotziari, udalerriko elkarteen kasuan izan ezik, esleitzen zaien lokaleko giltzaren kopia bakarra izateko eskubidea izango baitute.



- Materiala utzi den egoeran itzultzea, gainontzean beraien gain hartu beharko dute konponketa Udal lokalen eta materialen erabilera arautzeko udal-erregelamenduan arautzen duen bezela.
- 9.2. Ez lagatzea hirugarrenei, osorik zein partzialki, espazioa eta materialaren erabilera esleitutako ordutegiaren barruan, elkarteko kide izan ala ez.
- 9.3. Esleitutako espazioa, lokala eta materiala partekatzen duten beste elkarteak eta pertsonak errespetatzea, beren jardueren garapenean eragin gabe.
- 9.4. Udalari berehala jakinaraztea edozer anomalia, gorabehera edo arazo sortuz gero, baita premiaz sortzen diren bestelako baldintzak eta inguruabarrak ere.

**10. artikulua. — Baimendu gabeko jarduerak**

Erabat debekatuta daude honako jarduerak hauek:

- Substantzia psikotropikoak kontsumitzea eta erretzea. Edari alkoholduak edo elikagaiak sartzea, nola eta ez den berariaz horretarako baimena ematen.
- Lokaletan animaliak sartzea, gida-txakurrak izan ezik.
- Debekatuta egongo da alkoholaren edo bestelako drogen eraginpean dauden pertsonak sartzea.
- Ezingo da ipini lokalean tabakoa eta/edo edari alkoholduak kontsumiarazten duen publizitaterik.
- Ezingo da ipini kartelik edo/eta liburuxkarik, Udalaren baimenik izan ezean.
- Elikagaiak prestatzea lokalen barruan, nola eta Udalak ez duen baimena berariaz ematen.
- Segurtasun arrazoiak direla eta, material arriskutsuak erabiltzea edo gordetzea eskatzen duen ezein jarduera gauzatzea (produktu sukoiak eta abar).
- Lokaletan geratzea ezarritako ordutegietatik kanpo.
- Lokalak baimendutakoaz bestelako erabileretarako baliatzea.
- Lokalak legezketasuna urratzen duten jardueretarako baliatzea.
- Ezingo da jardueretarako materialik biltegitatu talde eta/edo elkarte bakoitzerako espazioetatik kanpo, eta guztientzako eremuek libre egon beharko dute beste jarduera batzuetarako.
- Lokalak ezingo dira erabili indarkeria, arrazismoa, xenofobia edo bestelako edozer diskriminazio mota sustatzen duten jardueretarako, ezta giza duintasunaren kontra doazen jardueretarako ere.
- Lokaletan sartzeko giltzen kopiak egitea.
- Lokalak ezingo zaizkio beste erabiltze bati laga, Udalaren baimenik izan ezean.

**IV. TITULUA****MATERIALAREN ERABILERA**

Material eskaerak interesatutako eguna baino astebete aurretik egingo dira gutxienez. Eskaerak udaletxean aurkeztu beharko dira, idatziz, eta bertan, eskatzen den materiala adierazi beharko da.

Egun eta ordu berdinerako eskaera bat baino gehiago egotekotan, lehenengo Mañariko Udalak antolatutakoak lehenetsiko dira eta ondoren Udal Erregistroan dagoen sarre-hurrenkerari jarraituko zaio.

Materialaren eskatzaileek eskatutako materiala zertarako erabiliko den, eguna, ordua eta arduradunaren identifikazio-datuak islatu beharko dituzte.

Eskatzaileek udalarekin adostutako lekuan jaso eta itzuliko dute materiala posible izanez gero eta, posible izan ezean, azken honek adierazitako lekuan. Materiala ekitaldia edo jarduera egin osteko hurrengo egun natural bietan itzuli beharko da. Hori behar



den bezala justifikatu eta ezinezkoa balitz, itzultzeko gehienezko epea astebetekoa izango da.

Inoiz ere ez dira lagako udal ibilgailuak.

### **11. artikulua. — Eskaerak**

11.1. Udal-lokala edo materiala erabili nahi duen interesatu orok instantzia bat aurkeztu beharko du Alkatetzan edo dagokion zinegotzigoan, zeina Udalaren erregistrora bideratuko baita ondoren. Agiri horretan bildu beharrekoak:

- Jardueraren eskatzailearen datuak — izan elkarte, taldea, partikularra eta abar — eta jarduera horren arduradunarenak.
- Egin nahi den jarduera mota.
- Ordutegia (egunak, orduak...) eta lagapenaren iraupena.
- Parte-hartzaileen kopurua (ezin da lokalaren plaza kopurua baino handiagoa izan).
- Jarduera ematen duen pertsonaren izena eta titulua, hala badagokio.
- Aplikatzekoa den lege-araudiaren arabera, jarduerak aseguru bat behar badu, berriaz jakinarazi beharko da.

11.2. Udalak bertan behera utzi ahalko du lokal edo materialen lagapena, baldin eta:

- Gaizki erabiltzen bada.
- Lagatzeko jarduera arrazoirik gabe aldatzen bada.
- Liskarrak edo jokabide txarra izaten badira.
- Erregelamenduan jasotako arauak betetzen ez badira.

Hori guztia erregelamendu honetan ezarritako arau-hausteen eta zehapenen arabera.

11.3. Lokala erabiltzeko elkarte edo onuraduna behartuta egongo da aldi baterako edo unean-unean bere jarduerak eteteko, baldin eta beharrezkotzat jotzen bada udal-ekitaldiak gauzatzeko edo nahitaez bete beharreko ekitaldiak izango balira. Kasu horretan, lagapen-hartzaileak behar bezain txukun utziko du lokala, udal-jarduera gauzatzea zailtzen duten elementurik gabe, Udalak helaraziko dion komunikazioan zehaztutako epearen barruan.

### **12. artikulua. — Eskaerak balioestea**

Dokumentazioa bete ostean, alkateak edo hark eskuordetutako zinegotziak egingo du balioespena, honako irizpide hauen arabera:

- 12.1. Jardueren proiektio soziala edo/eta kulturala.
- 12.2. Lehentasuna izango dute udalerriko elkarteek eta taldeek, egitura apalagoko bestelako taldeen gainetik.
- 12.3. Lehentasuna izango dute Udalak eta Udalarekin elkarlanean jarduten duten gainerako erakunde eta estamentuek antolatutako jarduerak.
- 12.4. Lehentasuna izango dute irabazi-asmorik gabe egindako jarduerak.

### **13. artikulua. — Erantzukizun zibileko aseguru**

Adingabeekin egiten diren jarduerak aseguru espezifikokoak izan beharko dituzte, talde arduradunek ordainduta.

Jarduera-mailaren arabera aseguru zehatzen bat behar duen jardueraren bat gauzatu beharko da, jarduera hori egiten duen taldea arduratuko da kontratatzeaz.

Frogatu egin beharko da aseguru-poliziaren ordainketa, eta udal-teknikariek eskatu ahalko dituzte haien ordain-agiriak.



## V. ZEHATZEKO ARAUBIDEA

**14. artikulua. — Obligazioak ez betetzea**

Dagokion espedientea eman ostean, zehapenak ezarriko zaizkie erregelamendu honetan jasotako hezibide-, bizikidetz- eta erabilera-arau oinarrizkoak betetzen ez dituzten pertsoneri eta/edo taldeei.

14.1. Kalterik izanez gero, lokala erabiltzeko eskatu duenak hartuko ditu bere gain.

14.2. Lagapen-hartzaileak izango dira lagatako espazioetan beren kideek edota erabiltzaileek hirugarrenei akzioz edo omisioz eragindako kalte-galeren erantzule.

14.3. Arau-hausteak:

- a) Arau-hauste arina: Arau-hauste arintzat hartuko dira larritzat edo oso larritzat hartzen ez diren erregelamendu honetako arau-hausteak.
- b) Arau-hauste larria: Hauek izango dira arau-hauste larriak:
  - a. Kalte eta txikizioak eragitea lokal edo material higiezinan edota higiezinan edo erantsitako geletan.
  - b. Edari alkoholdunak edo bestelako drogak sartzea geletan.
  - c. Pertsonak gutxietea edo iraintzea geletan.
  - d. Udal-eraikinak eta -lokalak Udalaren baimenik gabe okupatzea.
  - e. Udal-lokaletako giltzen kopiak egitea, baimenik gabe.
  - f. Gutxienez hirutan egitea arau-hauste arinak.
- c) Arau-hauste oso larria: Arau-hauste oso larritzat hartuko da:
  - a. Pertsonen askatasunaren eta osotasun moral edo fisikoaren kontra egiten duen oro.
  - b. Bizikidetzaren nahasmendu garrantzitsu oro, baldin eta modu larrian, be-rehalakoan eta zuzenean eragiten badio beste pertsona batzuen lasaitasunari edo eskubide legitimoak egikaritzeari, era guztietako jarduerak gauzatzeari —baldin eta jarduera horiek indarrean den araudia betetzen badute—, edo osasungarritasunari edo apaingarri publikoari, betiere Herritarren Segurtasuna Babesteko otsailaren 21eko 1/1992 Legearen IV. kapituluaren aurreikusitako moten barruan subsumitzekoak ez diren jokabideak badira.
  - c. Beste pertsona bati edo batzuei espazio publiko baten erabilera galaraztea, berez hura erabiltzeko eskubidea izanik ere.
  - d. Espazio publikoak edo haietako instalazio eta elementuak —higiezinak edo higigarriak— larri eta modu garrantzitsuan hondatzen dituzten ekintzak, herriarren segurtasunaren nahasmenduetatik eratorriak ez direnean.
  - e. Gutxienez bitan egitea arau-hauste larri bat.

14.4. Zehapenak.

- a) *Arau-hauste arinak*: Lokalak hiru hilabetez baliatzeko debekua.  
— 750 euro arteko isuna.
- b) *Arau-hauste larria*: Lokalak bi urtez baliatzeko debekua.  
— 1.500 euro arteko isuna.
- c) *Arau-hauste oso larria*: Lokalen erabilera behin betiko debekatzea.  
— 3.000 euro arteko isuna.

## XEDAPENAK

**Xedapen Gehigarria**

Zalantzarik sortuko balitz erregelamendu hau aplikatzean edo bertan bildu gabeko auzien inguruan, Alkatetzak hartuko du erabakia, egoki irizitako txosten teknikoak eta juridikoak kontsultatu ostean.

**Azken Xedapena**

Erregelamendu hau Udal honen osoko bilkurak behin betiko onartu ostean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

Mañarian, 2019ko abenduaren 16an.—Alkatea, Ainara Otxotorena Iriarte

